



ERRATEKO NITUENAK. Cuzcoko kronika. Pello Salaburu

Bilduma: Bakanak, 15

Orriak: 280

ISBN: 978-84-9746-895-4

Salneurria: 19,50 €

Inoiz ere eskribitu dudan liburu pertsonalena da hau. Pertsonalena, hainbertze arrazoiengatik: aukeratu gaiagatik, liburuari eman egituragatik, idazteko hautatu ereduagatik, bereizi dudan erregistroagatik. Literaturak beti sortu izan dit errespetu handia, ez dut ukatuko. Liburua euskara batuan dago, baina ekialdeko hizkera ibiltzen dut, Baztandik abiaturik. Horretan biziki argi bereizten da egun batuan nagusi den eredutik.

Liburuan badira datu autobiografikoak, baina ez da autobiografia bat, inondik ere; liburuan egiazko historioak narratu ditut, fikzionatuz, historioak ia-ia istorio bihurturik, baina ez da nobela bat; liburuan hausnarketak egiten ditut, han-hemenka, baina ez da saiakera liburua; bidaiak ageri dira, baina ez da bidai liburua ere.

Puzzle bat da liburua: Cuzcon, unibertsitatean, lanean eman nuen aste batetik abiaturik, aste hori kontatzen dut, eta bidaietan abiatzen naiz handik hona (Cuzcotik Baztan alderat) eta hemendik harat (Baztandik harat), etengabe joan-etorrika, puzzle guziaren piezak, ustez zuzen, ahokatu artio. Eta tartean, hor ere atsedetik hartu gabe, munduko bertze anitz toki ageri dira, nora erabaki duten joatea liburuko pertsonaiek: Paris, Amsterdam, Arizonako Grand Canyon zoragarria, Txilelo hazienda bat, Machu Picchu harrigarria. Horietaz guzietaz baliatzen naiz gure inguruko kontuez hausnarketak egiteko, gertaerak kokatzeko eta nire barne sentipenak agerian uzteko.

Gazte atera nintzen etxetik, hamar urte baizik ez nituen, eta kolkoan sartu nituen, isil-isilik, garai hartako historiak. Denboraren indarrak ekarri dituen bertze batzuekin nahasi zaizkit azkenean. Orain orrialde hauetan atera dira horietako batzuk.

Pello Salaburu
Donostia, 2014-04-09